

Lurre(z)ko ahizpen feminismo baten alde



Atzean utzi arren oraindik aldean daramagun urte honek, bizitza leihotik begiratzera behartu gaitu gutariko asko; beste hainbeste, hiri handietatik eta hiri handientzat pentsatutako neurri hiri-zentrikoetara ezinbestean egokitzera. Udaberria ate joka daukagu, eta itzuliko ez diren bizitza gehiegi eramán dituen pandemian darraigu, bizi dugun krisi, prekariedade eta zerbitzu falta areagotu dituená. Birus batek etorri behar izan du bizitzaren inguruan orbitatzen ez duen eta harrapatuta gaituen sistema hau jasangarria ez dela frogatzeko, eta beste krisi eta pandemia batzuen hasiera eta larriagotzea baizik ez dela erakusteko. Larrialdi klimatiko honi larrialdi soziala eta osasun arlokoa gehitu zaizkio azken boladan, eta ezin dugu manifestu hau hasi bertara birusak eta sistemak kolpatutako pertsona guztiak ekarri gabe. Agian, hitzak askorako gai ez direla pentsatzeko akatsean erori gaitzke. Baina guk garrantzitsuak izaten jarraitzen dutela uste dugu. Ziurgabetasun eta minagatik ere, gure hitzak beste inon existitzen ez diren pentsamendu- eta ekintza-ekosistemak dira. Horiei esker mundua ikus dezakegu, haren parte izan, birrimajinatu, eta sistema honetatik kanpoko beste etorkizun batzuetan pentsatu eta sinestea ahalbidetu.

Ahizpa,

2021 honetan ez gara beste urteetan bezala aterako kalera. Musuak, urtebetez sentitu ez ditugun besarkadak eta musukoek ezkutatutako irribarreak lapurtu dizkigun distantziak banatuko gaitu. Horregatik, plazak sekula baino hutsago egongo diren urte honetan, hitz hauek irakurtzera gonbidatzen zaituztegu, zuenak egitera, balkoietatik, sutondoetatik; tximinietako keak gure ahotsak elkartu ditzala, eta haizeak biziki urrun helarazi.

Martxoak 8 honetan ezin diogu emakume landatar bezala dugun ahotsa goratzeari utzi. Pandemiak argitasun-minutuak ere ekarri ditu; minutu horietan ikusi dugu nola jendartea bera antolatu eta arduratu den politika publikoek heldu nahi izan ez duten horretaz, ez direlako egoerak eskatutako mailakoak izan, ezta nahikoak ere. Eskerrak eman nahi dizkizuegu horregatik: elkarrekin bizitzeko eta elkarri laguntzeko beste era batzuk posible direla erakusteagatik.

Eskerrik asko emakume ekoizle eta pentsalariei, behetik antolatu direlako beraien bertako eta gertuko elikagaiak etxe guztietara heldu ahal izateko.

Bereziki gogoratzen ditugu SOS Campesinado bezalako ekimenak, eta aurreko urtean, beraiena ez zen herrialde batean, beraien familiengandik aparte, eta duin bezala izendatzetik oso urrun zeuden baldintzetan gure mugen barruan harrapatuta gelditu ziren jornalari migranteak. Baita iazko udaberri eta udan, berain bizi- eta lan-baldintza penagarrien ondorioz, covid-19a hartu zuten nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko langile guztiak ere. Horrek agerian jarri zuen honakoak ez errespetatzearen bidez eusten den ekoizpen-sistema intentsiboa: giza-eskubide oinarrizkoenak, animalien ongizatea, eta sostengatzen gaituzten baliabide naturalak eta lurraldea.

Eskerrik asko beraien abereak, lurra, zaintzeari, eta gure arraza autoktonoak eta bertako haziak gordetzeari egun bakar batez ere utzi ez dieten emakume guztiei, gure ekosistemak eta horien biodibertsitatea mantenduz. Ez birusak, ez neguko elurteek, ez dute lortu emakume horiek gelditzerik. Gure landa-eremuak hondamen-eremuak lirateke beraien jarraikitasun eta lan altruistagatik ez balitz, kasu gehienetan aitortu gabeko lan ikusezina izaten jarraitzen duen arren.

Aurten inoiz baino umezurtzago gelditu gara birusaren ondorioz. Maite genituen pertsona asko galdu ditugu: gure familiako kideak, lagunak, egunerokoan konplize... Eta, batez ere, landa-eremuko adineko hainbeste emakumeren begiraden eta eskuen atzean ezkututzen den jakinduria handi hori galdu dugu. Lurraren, inguratzen gaituenaren ezagutza, beraien amamen amamen amamengandik oinordetua, lore eta harriek jagongo dutena orain, eta emakume horiekin betirako joana dena.

Haiekin joan dira, era berean, inoiz bueltatuko ez diren hitz ugari. Batzuek, zortea izanez gero, tokiko hiztegiren baten orrietan jasota gelditu izango dira, norbaitek berreskuratzeko zain. Ezin dugu ahaztu landa-eremuko emakumeek zaindu duten hizkuntza-aberastasuna, inguratzen gaituen elementu oro izendatuz; eta, horiei esker, gaur egun hainbat hizkuntza eta azentu entzuten jarraitzeko suertea dugu, gure landa-inguruneak berezi eta askotariko bihurtzen dituztenak. Hizkuntzaren eta hitzaren atzean, zoragarriak eta bakarrak diren bizimodu eta loturak daude.

Ez ditugu ahaztuko beraien dibertsitateagatik diskriminatuak diren emakume guztiak, ezta gure ahizpa transak ere. Ezin ditugu ahaztu beraien eskuekin ikusi eta hitz egiten duten emakumeak, bidea beste abiadura

batean egiten dutenak. Oinaze eta ondoez emozionala pairatzen duten emakumeak, gaitasun ezberdinak dituztenak. Ero deitutakoak, arraro deitutakoak, desgaitu deitutakoak. Ezberdin izatearren seinalatutakoak. Bitan ahaztuak eta pandemiak bitan erasanak.

Denok gara ezberdin,

eta denok,

elkarrekin,

gure aniztasunarekin, zaintzen ditugu gure landa-inguruneak. Bizitzaz betetzen ditugu eta aurrera egiteko saretzen gara, komunikabideei hainbeste gustatzen zaizkien “des-“ hasiera duten hitz horiek ahaztuz.

Pandemiak besarkadak lapurtu dizkigula genion, baina inoiz baino sare gehiago ehundu ditugu pandemiak areagotutako zerbitzu falta osatzeko. Beraien etxeetatik irten ezin zirenei elikagaiak eramateko antolatuz, urrun egonagatik senideak ikusi ezin zituztenak bisitatuz, eta gertu ditugunak zaintzeari sekula baino denbora gehiago eskainiz.

Garai zail hauetan, emakume askok bateratu behar izan dituzte soroko lanak, beste batzuek telelana, edota osasun-zentroetan erne eta tinko jarraitzea; irakasle, zaintzaile, erizain... izatearekin. Beti besteentzako eskuragarri.

Etengabe entzun dugu zorte handikoak garela herri batean bizitzeagatik, naturarekin harreman zuzena dugulako. Baina inork ez du ikusten hemen oinarritzko zerbitzuak doblezka murriztuak izan direnik; aurretiaz eskasak ziren zerbitzuak, kasu askotan desagertu egin direnak. Birusa aitzakia harturik eguneko zentro eta jantokiak itxi dira, eta haurtzaindegi zein zaintzei eskainitako beste espazio ugariaren ordutegiak murriztu. Gainera, familia askok beraien adinekoak egoitzetatik atera behar izan dituzte, kutsatuko zirenaren beldur; ondorioz, emakume asko beraien lanak menpekotasuna duten senideen zaintza-lanekin kontziliatzea beste alternatibarik ez dute izan.

Gogoan ditugu baita ABEEak (ERTE) jasan dituzten kideak, eta pandemiatik eratorritako krisiagatik beraien negozioak itxi behar izan dituztenak. Ikusi dugu nola, denbora luzez, administrazioek turismoa bultzatu duten landa-inguruneetan (ia) diru-iturri bakar bezala. Aurten pandemiak ekarri du landa-eremuan turismoan jarduten duten familia asko zinez gaizki pasatzen egotea, eta beste aukerarik ez izatea.

Pandemiak areagotu egin du, inoiz baino areago, eten digitala. Gure herrialdean telelana gailendu den urtean, honekin egin dugu topo: hiri handietan 5Ga iristen ari den bitartean, herri askotan ez dago ezta banda zabala ere. «Telelan» hitza txertatu dugu gure errutinan, eta komunikabide eta administrazio askorentzat gure landa-inguruneen panazea eta salbazio bihurtu da. Guk, gaur, *lurlana* aldarrikatu nahi dugu. Landa-eremuan lurra eta etxebizitza duina eskuragarri izateko borrokan jarraitu nahi dugu. Lurraldeari lotuta dauden ekoizpen agroekologiko eta estentsiboak lagundu, eta horiei bide ematea nahi dugu, ingurumen-balio altuko elikagaiak sortzen dituztenak baitira, pertsona, animalia, hazi eta luraren arteko lotura bakarrak sortuz. Gure lurretan lanean diharduten pertsona migratuentzako duintasuna eta eskubideak nahi ditugu. Merezi ditugun kalitatezko zerbitzu publikoak nahi ditugu.

Laster itzuliko da udaberria.

Gure lurrek bestelako bihar batean pentsatzera garamatzen berde kolorea dute jada soinean. Ez dio ardura zer datorren, elkarrekin jarraituko dugulako ezbeharrei aurre egiten. Birus hau ere ez delako izan gure lurraldea husteko gai. Pandemiaren aurrean elkarrekin darraigu. Gure herriak batzen jarraitzen dugu, lotura eta sareak ehuntzen, sorlekuaren koloreak tindatutako gure eskuekin. Hemen, lurrean, gelditzen gara, eta «aterreñar» aditza jokatzen dugu, esperantza eta argia itzultzen dizkigun iparraldeko hitza. Zera esan nahi du: elurraren ondoren lurra berriz ikusi eta zapaltzea; baina ez soilik guk, baita animaliek ere, elurte handien ondoren bazkalekuetara itzultzen direnean. Badakigu laster zikindu ahalko ditugula gure eskuak lurrez, denok elkarrekin; elkar begiratu, eta irribarre egin.

Denon feminismo baten alde,
Lurre(z)ko ahizpen feminismo baten alde.

*Ilustrazioaren egilea [Eva Piay](#) da. [Hemen](#) jaitsi dezakezue.

** (Manifestu hau Lucía López Marco eta María Sánchezek idatzi dute, Celsa Peitado, Ana Pinto, Blanca Casares, Patricia Dopazo, Mentxu Ramilo, Karina Rocha, Elisa Oteros eta Elena Medelen aholku eta ekarpenei esker. Baita ekarriak helarazi dituzuen beste hainbesteri esker ere.

*** Manifestu hau Leire Milikua Larramendik itzuli du euskarara.